



Herri kirolak Zabaletako festei amaiera emateko.- Lege onean bukatu ziren atzo 2015eko Zabaletako jaiak. Herri kirolek hartu zuten protagonismo goizean, Pepe Enea baserriko idia eta zaldieren demak ikusmin handia piztu zuen, zinek plaza gehiago egingo 20 minutuko denboran 850 kiloko harria mugituz. Lehia handi eta gogor baten ostean, Imanol Mujika eta Sanii Telleriaren bost urteko zaldiak irabazi zuten, 50 plaza osatuta. Enrike Artola eta Inaxio Telleriaren 650 kiloko idiak beriz 46 plaza osatzea lortu zuen. Ostean, Errezildik gurea etorrita, Aimar Irigoien hari txiki eta handietako Euskal Herriko txapeladun eta Beñat Telleria herriko harriazotzale gazteak erakustaldia egin zuten Antonio Blas plazan. Telleriak 100 kiloko zilindrikoarekin 20 jasoaldi eman zituen 1:44 minutuko denboran eta kubikoari 14 jasoaldi eman zizkion 2:00 minutuko tartean. Irigoienek beriz 125 kiloko zilindriko zaharra 20 aldiz berdindu zuen 2:00 minutuan eta 125 kiloko kubikoa 12 aldiz jaso zuten denbora bera erabilita. Amaizteko, denbora librean jardun zuten Telleria eta Irigoienek 100 kiloko bolarekin. Bien artean 40 aldiz jaso zuten harria ikusleen gozamerako. Ohi bezala, Luis Mari Telleria izan zuten laguntzaile lanetan.

4 JAIA
Rocioko erromeria
egingo du
Semblantek

Ohiturari jarraiki, Rocioko erromeria ospatuko du asteburuan Semblante Andaluz elkarteak Atsobark perkean. Bi egunetan, musika, dantza eta jai giroa izango dira nagusi. Larunbata eguerdian hasi eta igande iluntzerate luzatuko da festa. Herritarrak parte hartzera gonbidatzen dituzte.



6 KIROLA
Ostadar SKTren
denboraldi
amaierako jaialdia

Herriari irekitako jaialdia antolatu zuen atzo Ostadar SKTk eta Okendo plaza jendez bete zen larunbat arratsaldean. Auzolan saria Peio Ormazabal Erketzeko kideari eman diote eta Eneritz Busto LOEko atletari kirolari onenarena. Jokalari jatorrenen sariak ere banatu zituzten.



ADURIZ DE LASARTE S.A

Solomoa baratxuritan Odolkia- Solomoo ontzutua
Etxeko txorizoa Tripakiak- Saltxitxak
Txistorra Basurde burua
Baserri pateia



BERTAKO FABRIKAZIOA

Loidi Barren kalea 3 • 20160 Lasarte-Oria • Tel.: 943 361278 - 943 361655 - 943 362451

2015eko uda-ikastaroa

UDAL EUSKALTEGIAN

1., 2. eta 3. MAILA

AZTERKETA PRESTAKUNTZA: B1, B2 ETA C1 (EGA)

16 urtetik gorakoentzat

• Astelehenetik ostiralera
• 3 orduko ikastaroa (9:30 - 12:30)

• Prezioa: 97,20 €

• Diru-laguntzak badaude (baldintza batzuk betetuta), Galdetu Udai Euskaltegiari.



LASARTE-ORIA
Udai Euskaltegia

Ikastaroaren iraupena: Uztailaren 1etik 28ra.

Matrikulazioa: ekainaren 1etik 15era

Bulego ordutegia: 08:30 - 19:00

Tel.: 943 361621 e-maila: euskaltegia@lasarte-oria.eus

ASTE BERDEA

Ingurumena zaintzeko pausoak ematen

Gaikako bilketa eta barazkien ekoizpen ekologikoa landu ziren Aste Berdean

Ingurumenaren eguna ospatu zen ostiralean. Hori zela eta, Lasarte-Oriako Udalak Aste Berdea antolatutako lehenengo astean. Aurten baratza baldakoa tailerra antolatuko eta merkatariei zuzendutako kartoien gaikako bilketa-aren kontzientziaioa landu da.

Tomateak, landare aromatikoa... ostiralean Udala pabilioan egin zen tailer-arean zure bakoiko edo terrazan baratza txiki ekologikoa nola euki azaldu zuten.

Anjel Azpillaga eta Igone Campos Mendi Enarako ingurumen hezitzaileek lehenik asmoa aurrera eramateko hainbat liburu gomendatu zizkieten tailerera hurbildu ziren herritarrei.

Gainera, baratzaren orientazio egokiena, ongari naturalak (konposta, azeri-buztana edo osina) edo landareak non kokatu ere izan zituzten hipidie.

Azkenik, lorontzietan barazki eta lore aromatikoa nola landatu eta hauek nola

zaindu ikasi zuten era praktikoan.

Gaikako bilketa

Bestalde, aste osoan zehar, bi ingurumen hezitzaileek herriko komertzio eta ostalaritza establezimenduetan bisitatu dituzte karto hondakin guztiak gaikatu egokien biltzeko kontzientziatu eta Sanmarko komunitateak duen bilketa zerbitzua ezagutzera emanaz.

Asteartero 9:30etik aurrera zerbitzuko kideak komertzio komertzio doaz kartoak biltzen. Baldintza bakarra, dendarietara karto hondakinak tolestuta eta pilatuta uztea da.

Zerbitzuan izena emateko merkatariek Sanmarko Markomunitateko 943 21 49



Exeean baratza ekologikoa nola egin eta hainbat gomendio ikasi ahal izan ziren ostiralean.

77 zenbakira deitu behar dute.

Honetaz gain, hezitzaileak auzo auzo ibili dira triziklo berezi batzuetan eta hauetan gaikako birziklapenari buruzko informazioa zuten. Garraibide berezi hauekin, herritarren arreta bereganatu nahi izan dute eta herritarrek galdetuz gero, birziklapenari buruz zituzten kezak azaldu zizkieten.



Aste osoan zehar, bi hezitzaile ibili dira herrian komertzio komertzio.

Ekainaren 9an eskualdeko herritarren batzarra

Aurrera doa Foru Aldundiararen aurrekontuko 2 milioi euro Buruntzaldea eskualdean (Astigarraga, Andoain, Lasarte-Oria, Hernani, Urnieta, Usurbil) zertan inbertitu erabakitzeko partaidetza erabakia.

Guztira 155 proposamen jaso dira apiril eta maiatzean zehar herritan egin diren bilera irekietan, postontzietan nahiz Internetez.

"Proposamen horiek aztertu eta batzuk alde batera utzi dira, bi baldintza nagusiak betetzen ez dituztelako, gaia Foru Aldundiaren eskumeneko izatea eta eskualde izatera edukitzea, hau da, herri bat baino gehiagotan garatzea. Beste batzuetan proposame-

nak elkartu egin dira, gai berari buruzkoak zirelako" azaldu dute Aldundiko erredaktariek.

Kontuak kontu, 72 proposameneko zerrenda jarriko da mahai gainean hauen artean 10 lehenesteko.

Gai edo arlo hauetan sailkatu dira proposamenak: Berdintasuna, parte hartzea, euskara, aniztasuna; Gizarte politika; Ingurumena; Kultura, gazteria eta kirola; Landa garapena - Ekonomia; Mugikortasuna eta Bide Azpigiurak.

Adibide gisa, haur jaio berrien garasoei euskara eta euskal kulturari mugiltzeko eratzusunak ipintzea proposatu da, eskualdeko politikak

parte hartzaileak sustatu, behar bereziak dituzten umeentzako diziplina anitzeko errehabilitazio zentro bat eraikitzea, alokairu soziala sustatu, drogen kontsumoa geldiarazteko ekintzak buruztea, Oria eta Urumea ibiak garbitu eta balioa emateko programa garatu, Andatza mendiko bideak eta ondareak berreskuratu eta seinalizatu, eskualdeko kirol instalazioen egoera eta eskaintza hobetu besteak beste.

Batzar irekia

Jasotako 72 proposamen horietatik 10 lehenesteko batzar irekia egingo da ekainaren 9an.

Batzararen parte har



Aldundiko bilera Villa Mirentxun egin dira.

dezakete Astigarraga, Andoain, Lasarte-Oria, Hernani, Urnieta eta Usurbilgo herritarrek.

Hau Beterri Garapen Integralerako Agentziaren egi-

tzan egingo da, Florida auzoa 28, Hernani.

Foru Aldunditik eskualdeko herritarrek animatu nahi dituzte prozesuan parte hartzea.

Diruz laguntzen duten erakundeak

Babeslea



LASARTE-ORIA
UDALA

Txinbarriak ez du bere gain hartuko irizti-artikuluetan edota irakurleen gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

Laguntzailea



Argitaratzailea:

Ttatum Kultur Elkarte
Geltoki kalea 4
20160 Lasarte-Oria
943 366 858/943 371 448
C-20407557
Legeko gordailua:
SSS13/93
ISSN: 1134-0053
Inprimategia
Zeroa Multimedia, S.A.
Aleak zenbakiko: 7800

txinbarri

Eredakzioa:
Maider Azumendi, Jon Altuna,
Nerea Ezogorri
txinbarri@txinbarri.info
Publizitatea eta administrazioa:
Aiantza Artola
publizitatea@ttatum.com
administrazioa@ttatum.com
Laguntzaileak:
Unai Muñoz, Gorika Lasa,
Ane Labako, Iñaki Amal, Aider
Oñozola, Maider Seguraola, Jeux
Artebe, Gorika Alvarez, Piko
Azapitarte, Eder Galland
Informatikoa:
Xabier Amador

KULTURA

Artista gazteen harrobia

Erakusketaren itxiera egin zuten Brancussikoek



Ikasleek pozik agertu ziren egindako lanarekin eta baita erakusketak izandako harrerarekin ere.

Brancussiko ikasleek ikasturteari amaiera eman zioten ostiralean Merzero aretoan jarritako erakusketaren azken egunean. Bertan izan dira 60 artista gazteen lanak ikusgai eta ostiraleko hitzorduarekin, bakoitzak bere lana etxera eraman ahal izan zuen.

TXINTXARRI

Ikasturte amaieran sartuta, Brancussi akademiko ikasleek euren lanak ikusgai izan dituzte Merzero aretoan. Ostiralean erakusketari amaiera eman nahi izan zioten ikasle guztiak.

Aurten 60 ikasle aritu dira marrazketa lanzen eta guztira 82 lanekin osatu dute erakusketak Jose Manuel Monge irakasleak azaldu moduan. 15

urte dira akademian marrazketa haur eta gaztetoekin lanzen dutela eta dagoeneko hamar urte dira halako erakusketak herrian antolatzen.

Denak pozik azaldu ziren erakusketak izan duen harrerarekin. Leku ezin hobea dela alipatu zuen irakasleak eta hauen beharra herriko artisten lanak jendeak ezagutzeko aukera izan dezan. Izan ere, areto argitsua, han-

dia eta zentrikoa da. Plazan bertan egoteak Mongeren hitzetan, bisitari gehiago erakarri ditu aurtengoan.

Gazteenentzat esperientzia berria izan da halako aretoan lanak erakustea eta behin baino gehiagotan gerturatu dira guraso, senide edota lagunekin lanak erakustera.

Marraztutakoari dagokionez, irakasleak proposatutako gaiak izan dira batez ere. "Ikasturtean zehar landutako ariketak praktikan jartzeko".

Irailean berriz ikasturteari ekiteko gogotsu agertu ziren ikasleak eta irakaslea eta datorren urtean ere erakusketak dotorea prestatuko dutela argi dute.

KUKUKA

Antzerki eta dantza astea indarrez

Kukuka antzerki eta Dantza eskolako ikasleak 13. antzerki eta dantza astean parte hartzeko gogotsu daude.

Aste beteko atsedendiaren ostean, gaur arratsaldeko 19:00etan hasiko dira berriro ere saioak LH6 mailako eta Zubietako LH4-6 mailetako lanekin.

Astean zehar, antzerki saio guztiak 19:00etan izango dira, ostegun eta ostiralekoak izan ezik.

Ostegunean, LH1 eta LH2koek euren antzerki emanaldia eskainiko dute 18:00etan eta 21:00etan gaezalean 'Pentadrama' antzerkiak gozatuko da. Ostiralean, berriz, 22:00etan helduek 'Egunero ringiri' lana eskainiko dute.

Asteari amaiera emateko Dantzaz Blai eguna antolatu da ekainaren 14ean. 12:00etan, Euskal dantza eta euskal sorkuntzako ordubeteko saioa izango da eta azkenik, dantza garaikideko taldeek 19:00etan eskainiko dute emanaldia.

JAIK

Zikiro afarirako txartelak salgai

Badatzo San Pedroko eta festa egitarauaren baitan jende asko biltzen duen hizordua izan ohi da Zikiro afaria. Aurtengoan ostiralean, ekainaren 26an izango da 22:00etan Okendon.

Afari hau Titkun elkartek antolatzen du eta aurrez txartelak erosi behar dira. Dagoeneko Titkunen bulegoan eta Jalgin daude eskuragarri. Afariaren prezioa 20 eurokoa izango da eta ohiko menua dastatuko dute parte hartzaileek, entsalada, zikiroa, postre goztoa, edaria eta kafea barne. Antolatzaileek txartelak ahalik eta lasterren erostea gomendatzen dute.

MUSIKA

Herriko SuBerri taldea XVIII. Aita Donostia Aste Musikalean

SuBerri akordeoi taldeak larunbatean, ekainak 13, Donostian ospatuko den Aita Donostiaren omenezko XVIII. aste musikalean parte hartuko du. Emanaldia Kaputxinoen elizan izango da 20:30ean eta beraien batera arituko dira Aita Donostia abesbatzako kideak. 1998. urtean hasi zen Aita Donostia abesbatza emanaldi sorta hau antolatzen. Edizio honetan asko izango dira parte hartuko duten taldeak. Izan ere, jaialdi musikala ekainaren 19an hasiko da eta 14ra bitartean luzatuko da.

GURE ESKU DAGO

Globo ibilaldiko irabazleak

Lasarte-Oriako Gure Esku Dago ekimeneko kideek globo aerostatikoan herriatik buelta bat emateko zozketa egin zuten atzo. Zerbaki irabazleak bi dira, 2.367 eta 2.221.

Saria ekainaren 12 ostiralean gozatuko dute. Sarituek lagun batekin globoan ibiltzeko aukera dute, beraz lau pertsona izango dira globoan ibiliko direnak. Tximistarreta parketik aterako da globoa 18:30etatik aurrera eta herri gainetik hegan egingo du. Baina globo iterea honetaz gain, ekimeneko kideak jaialdi txiki bat antolatu dute ostiralean Tximistarreta parkean bertan. Honetan, Donostian ekainaren 21ean Lasarte-Oriako tartea betetzeko falta diren oihalak margotuko dira eta hurbiltzen diren herritar, tutore eta sareturek txokolatada goxoa dastatuko dute.

ELKARRETARATZEA

Arrozpiden aurkako epaia salatu zuten

Lasarte-Oriako Sortuk deituta "Mendekurik ez! Santi askatu!" lelopean, elkarretaratzea egin zen ostiralean Santi Arrozpiden herritarren aurkako epaia salatuz.



Leire Zubizarretari babesa

Leire Zubizarreta herritarra ETB1eko 'Gu ta Gutarrak' programako hirugarren denboraldian ari da lehian.

Ostiral arratsaldean saioko kamera eta mikrofonoak Zabaletara hurbildu ziren bideo berezi bat grabatzera.

Herritarra finalean da eta ezusteko moduan bideoa egin nahi izan dute senide eta lagunek.

Zabaletako Jaiak izaki, herritar ugari animatu zen grabaketan parte hartzera. batez ere txikitxoak. Telebistakoei hainbat bihotz irudi ekarri zituzten eta bere lagunek Leire animatzeko kartelak ere prestatu zituzten. Auzoko jai giroa aprobetxatuz, iskanbila ederra sortu zen Zubizarreta 'jatorrena' animatu nahian. Talde-argazkia ateratu zuten eta bideo



ETB1eko Gu ta Gutarrak saioko kamerak Zabaleta auzoan izan ziren ostiralean.

plano ezberdinak ateratu zituzten telebistakoei bi minutu inguru irauan duen bideoa muntatzeko.

Leirek dagoeneko beste final bat bizi zuen telebista

saioan eta kasu horretan senideek etxean grabatu zituzten babes bideoa.

ETB1ean emititzen dute 'Gu Ta Gutarrak' saioa astean zehar, 21:00etatik aurrera.

Rocioko erromeriarako guztia prest

Ekainaren 13 eta 14an, Rocioko erromeria ospatuko da Atsobakar parkean

Maiatzaren 24 eta 25eko gauean hesiaren jauzia izan zen fededunek gurtzeko. Aurretik Andaluzia eta Estatu osoetik milaka lagunek erromeria egin zuten herrixkara, baita Lasarte-Oriako Semblante Andaluz elkarteak lagunak ere. Baina badago Rociora joan ezin duenik ere eta horregatik, Semblante Andaluz elkarteak Rocioko erromeria antolatuko du ekainaren 13 eta 14ean, Atsobakar parkean.

TXINTXARRI

Semblante Andaluz elkarteak lagunak guztia prest dute XII. edizio honi hasiera emateko. Aurrekoa lez, asteburu osoa iraungo du erromeriak eta horregatik egitarau zabalago antolatuko dute. Ez dira bakarrik izango, Irungo Embrujoko kultur elkarteak, Errenteriko Concha Rociera eta Aljarafeko Andoaingo Triana eta Zuenen elkarteak eta Arrasateko Al-Andaus elkarte andaluziariek ere parte hartuko dute jaialdi honetan.

Larunbatean, eguerdian hasiera emango zaio errome-

riari eta 14:30ean, Herri Bazkaria izango da.

Bazkal ostean berri, musika izango da nagusi. 17:00etan, gonbidatutako etxeetako koru Roziero ezberdinak kantuan entzuteko aukera izango da eta 19:30ean, Amigos del Sur taldearen emanaldia.

Igandeetan, Arantzazuko Amaren parrokia eramango dute jaia. 11:30ean meza rozierora izango da "Semblante Rociero" koruaren eskutik.

12:30ean, Birjina aterako da elizatik eta herri kaleetatik barrena Atsobakar parkerainoko bidea egingo du



Rocioko erromeriko giroa ekarriko du Semblante Andaluzek Lasarte-Oriara ekainaren 13 eta 14an.

erromerian.

Parkera iristean, autoritate eta gonbidatuei ongietorria egingo zaie eta 15:00etan, elkarte gonbidatu eta Semblanteko lagun guztiztat herri paella izango da.

Indarrak hartu ostean, dantzarako txanda izango da. 16:30ean, Semblante Andaluz eta talde gonbidatuen

emanaldiaz gozatu ahaliko da eta ostean, Alegria de la Sierra taldeak dantzan jarriko du parkera.

20:30ean, Birjiniari agurra egingo zaio "Salve Rociera" abestuz eta jai giroa ordu batez behiago egingo da parkera.

Hau guztiaz gain, Andaluziako giroa Atsobakarreko

parkera ekartzeko, musika eta Erkidegoko produktuak dartzeko aukera izango da asteburu osoan zehar egongo den barran.

Semblante Andaluz elkarteak bere kideak eta herriarriak gonbidatzen ditu ekainaren 13 eta 14an Atsobakarreko parkera hurbilduko eta erromeriaz gozatzera.

Bidegorriaren irekiera ibilaldia, datorren larunbatean

Herriar talde batek Lasarte-Errekalde bidegorri berriaren herri-inaugurazioa antolatuko du eta lasarteerri bertan parte hartzeko deia egin nahi die. Ekimena ekainaren 13an izango da, larunbatean, 11:00etan Eusko Treneko geltokitik oinez zein bizikletaz abiatuta. Helburua bidegorri berriagatik poza agertzea da eta, aldi berean, hemendik aurrera bide bereetik pauso gehiago eman behar direla aldarrikatzea.

"Gure iritziz, poza ondo justifikatuta dago. Izan ere, bidegorriak hausti du Lasarte-Oriaren isolamendu ulertezina. Ulertezina diogu, ulertezina baita herriatik Errekaldera joateko (2,5 kilometro) derrigorrean autoa, autobusa edo trenatu behar izatea. Orain, aldez, bidegorri berriari esker, oinez edota bizikletaz modu zuzen eta seguruan joateko aukera dugu, eta Errekaldeetik barrena Donostiaraino (eta alderantziz, jakina). Beraz, esan bezala, poza ondo justifikatuta dago. Baina, aldi berean, bidegorri berriari argi erakusten du lana ezin dela inolaz



Maiatzaren 18an zabaldu zen bidegorri berria.

ere bukatutzat eman, eta bide beretik pauso gehiago egiten jarraitu beharra dagoela. Izan ere, premiazkoa da Foru Aldundiak egin duen bidegorri berria eta Garaikoetxean abiatzen den herriko bidegorria elkarren artean lotzea. Gainera, ez da begi-bistatik galdu behar Lasarte-Oriak ez duela Donostiarekin soilik komunikazio-arazorik. Usurbilera edo Andoainera oinez edo bizikletaz joateko ere nahikoa komerzio dago. Hau da herri-inaugurazioari eman

nahi diogun zentzua", adierazi dute.

Hamaiketakoa

Eusko Treneko geltokitik abiatuko da txangoa oinez eta bizikletaz, Errekaldera iritsi arte eta buelta. Edozeinek parte hartzeko moduko ibilaldia da. Tartearen inaugurazio-ekitaldi xume bat ere egongo da: hitz gutxi batzuk, musika eta hamaiketakoa, norberak berea eraman dezan, antolatuzailek denontzako sagardoa eramango dute.

Kurtso amaierako diploma banaketa egin dute Lasarte-Usurbil BHI Intitutuan



2014-2015 ikasturtean Batxilergoa amaitu duten ikaslearen argazkia.

Batxilergoa amaituta, bizi-tzako ziklo bat itxi eta berriei ekitea tokatzen zaie Lasarte-Oria eta Usurbil BHI Intitutuan. Batzuek Unibertsitatera joko dute aste honetan bertan egingo duten Selektibitate azterketak pasa ostean. Beste batzuek aldez, Goi-mailako Lanbide Heziketa eraman dute izana. Baina denek dute aurrean landu beharreko bide bat, etorkizun bati.

Diploma banaketa

Ana Galarraga Elhuyarrekoko kazetari eta komunikatzaileak hitzaldi txiki bat eskaini zuen

ostiral eguerdian ikasle, irakasle eta bertaratu ziren gurasoen aurrean. Hedy Lamarr 1914an jaiotako aktore, amatzaile eta telekomunikazio ingeniariari austriarraren bizitza eta lorpenak izan zituen mintzagai, "ausardia, pasioa eta lana" uztartuta lortu zituenak.

Amiairen, gelaka talde argazkia atera eta ohorezko diplomak banatu zituzten. Beñat Urruzola, Aitziber Rubio eta Aitor Arzalluentzat izan dira aurtengoen matrikulak. Aipamen bereziak, Julen Cacho, Ane Galardi, Eukene Ull eta Germin Baldarentzat.



Jendetza bildu da asteburuan Zabaletan prestatu dituzten ekintzetan. Guztiek izan dute gozatzeko aukera.



Zabaletako festetako argazki guztiak tintxarri.ueb.org-ean.

Amaitu dira Zabaletako festak

Asteburuan Zabaleta kirol eta kulturaz sorgindu ostean, Teresategira itzuli da Teresa sorgina

Dantza, musika, antzerkia, krosa, txirringululari lasterketa, herri kirolak, musa, herri-bazkaria... Denetarik izan dute Zabaletako festek, ohi bezala. Baita eguraldi triste samarra ere, azken urteotan gonbidatu gabe etortzen da xirimiria eta euria Zabaletara, gehienean ateri eutsi bazion ere. Baina zabaletarren umore onak eta alaitasunak jarri zion kolorea asteburuari.

Txokolatada eta antzerki emaldiak ireki zuten Zabaletako festen asteburuko egitaraua. Teresa sorginaren jaitsieraren zain zeuden Zabaletako bizilagunak eta Teresategi menditiki txalaparta doinuen eritmorora Antonio plazara jaistean emozioak ezlanda egin zuten.

Jailetako pregoia irakurri eta bertso bat eskaini zioten zabaletarrek hain maite duten sorginari. Haren omenez Sorgin Dantza egin zuten gero haur, gazte eta helduek. Jalgurenen ikuskizunak eta Dinbi Bandaren perkusioak girotu eta alaitu zuten petral xamar zegoen eguraldia. Eguna amaitzeko, Kukukaren dantza garikidea eta Itzarturen erromeria izan ziren afalostean..

Larunbata, kirolez blai

Kirola izan zen protagonista larunbat goizea arratsaldean. eguerdia baino lehentxeago hasi zen II. Sorgin krosa, 6,6 kilometroko ibilbide aldapatsuarekin. Azkarrenak Raul Gomez Margallo eta Naiara Casi izan ziren. Gizonezkoetan Iraitx Arribarrena eta Imanol Artega izan ziren podiuma osatu zutenak. Emakumezkoetan Maite Salazar izan zen bigarren eta Leokabato Uxue Oixandorena, Leire Yeregi eta Maddi Tranxte hirugarren. Lasterketaren ostean hasi zen Joxe Migel Aranzadiren omenezko VIII. eskoba eta mus txapelketa.

Arratsaldean txirringululari lasterketak egin ziren alebin eta infantil mailetan. Bazpiko ziklistak bertan zirela.

Iluntzean Ane Labaka, Eli Pagola, Jexux Mari Irazu eta Iker Zubeldia aritu ziren bertsoan eta gauean, Gazte rock gauearen txanda izan zen ordu txikietara arte.

Igandea, azken eguna

Diana eta auzo garbiketa txapelketak esnatu zuten Zabaleta festen itxiera egunean. Kukukaren euskal dantza saioak eta tortila lehiaketak eman zioten jarrera festari, eguerdian eguneko hitzordu garrantzitsuenari hasi zen arte.

Pepe Enea baserriko Imanolen zaldia eta Inazioaren idiaren arteko demak ikusmina piztu zuten, iaz arte proba mixtoak pizten zuten bezala, baina aurten talderik osatu ez eta Aimar Irigoien eta Urtzi Telleriak harri-jasotze erakustaldia eman zuten. Indarrak berreskuratuzeko herri bazkaria egin eta Xumelaren kantu festari Egan talde mitikoak eman zion jarrera. Toka txapelketak eta Teresa sorgina agurtzeko azken trakak Zabaletako festak datorren urtera arte agurtu zituen.



Teresa Sorgina Zabaletako abenturen lekuko zuzena izan da.



II. Sorgin krosako podiuma osatu zuten neska-mutiak, sariak eskutan dituztelak. Gaztak, txuleetak, oroigarriak...

OSTADAR.

Ostadar SKTk festa handi batekin amaitu du denboraldia

Okendo plazan tenisa, toka, bola-jokoa, saskibaloia eta futbola egin zituzten, besteak beste

Herriari irekitako jaialdia antolatu zuen atzo Ostadar SKTk. Aurtengo berrikuntza denboraldi amaierako festa Okendo plazara eramatea izan da. Barra bat jarri zuten eta plaza jendez bete zen larunbat arratsaldean. Auzolan saria Peio Ormazabal Erketzeko kideari eman diote eta Eneitz Busto LOKEko atletari kirolari onenarena.

TXINTXARRI

Toka, triple lehiaketa, tenisa, bola-jokoa, pinboak, zozketak... Dene-tarik izan zen Okendo plazan ospatu zuten denboraldi amaierako jaialdian. Ohi bezala, Auzolan saria eman zuten, aurtun Peio Ormazabali eman diote, urte luzez Erketzen dantari eskainitako denbora eta gogoagatik. Herriko urteko kirolari onenaren saria berri, Eneitz Busto LOKEko atletari eman diote Espainiako txapeldu izan baitzen neguan, 60m hesi-tan. Ostadarreko taldeetako jokalarri jatorrenek ere jaso zuten oroiagarria eta Eibar, Real eta Baskoniaren materia zozketatu zuten.

Futbol Eskola

Bestalde, datorren denboraldirako futbol eskolako izen-emate epea zabaldua dago hilaren 19ra arte. Informazio

gehiago Ostadar SKTen bule-goan bertan eskuratu ahal izango da, 18:00etatik 20:00etara. 2005, 2006 eta 2007 urteetan jaiotako gazte-txoentzat da eskaintza.

Aretu futbola

Datorren urterari begira, areto-futboleko kadete eta jubeni-len taldea osatzeko asmatan dabil Ostadar SKT. Jokatzeko edota taldeak diruz babesteko interesa dutenek ostadarfs@gmail.com helbidea edo 675 706 127 zenbakia dute aukeran.

Mendi saila

Datorren martxaren hamagarrren edizioa burutu zuten joan den asteburuan Ostadarreko 22 lagunek.

Eguraldi paregabea izan zuten egun osoan zehar, eguzkitsu eta bero sapa-rik gabe. Hasteko, Kostaldeko GRa jarraitu zuten Sokoatik Hendaiaraino. Itsasontzi



Klubeko ordezkari erta jokalarri jatorrenak, Eneitz Busto herriko kirolari onena eta Peio Ormazabal Auzolan saria.



Giroko porraiko sariak banatu zituzten ostiraldean, Avenida.



Sokoatik Donostiarainoko bidea egin zuten mendi sailak.

Hondarribiara pasa ostenan, Jaizkibelen labarretatik bide ikusgarria egin zuten Pasai Donibaneraino. San Pedroa

barkuan igaro eta Talaia Bidean barrena, Donostiara allegatu ziren ia 10 orduko ibilbidea eginez.

Gauean afora egin zuten Ximirin eta Fati Serrano eta Joxan Salsamendi bikotea omendu zituen Ostadarrek.

OSTADAR.

Babyauto ZRT Beltzak Euskadiko txapeldu

Babyauto ZRT Beltzak 14 Burtzez azpiko taldea Gipuzkoako txapeldu izan ostenan, Euskadiko txapelketan aritu zen asteburuan. Anoetako miniatzioan. Arabako eta Bizkaiko txapelduak izan zituzten aurrez aurre gaztetxo lasarteoriatar eta zarautzarrek. Lehendabizi Gaztedi talde arabarraren aurka jokatu zuten Beltzakak, eta 26-12 irabazi zuten.

Torneo honetako bigarren partidua Universitario Bilbao-

ren aurka jokatu zuten. Herri-tarrek 60-0 irabazi zuten neurketa.

Euskadiko txapeldu izan ostenan, trofeoak jaso eta hiru-garren denbora bikaina partekatu zuten arabar eta bizkaitarrek.

Denboraldi bikaina osatu dute Beltzak taldeko kideek maila guztietan eta herriko errugbi harrobia indartzuz doala erakusten dute berriki lortutako emaitza bikain hauen.



ATLETISMOA.

LOKEko neskek Gipuzkoako azpitzapeldu

Herriko klubeko neskek historia egin dute. Lehen aldiz LOKEk Gipuzkoako txapelketan lehiatzeko taldea osatu du, hori gutxi ez, eta podiumeko bigarren koskara igotzira Oscar Goikoetxea eta Amaia Andresek entrenatutako atletak.

Maiatzaren 2an izan zen lehen jardunaldia Donostiako Miniestadion eta joan den asteburuan lehiatu zuten bigarrenen, leku berean. Bi jardunaldien artean osatutako 20 probetan batutako puntuek balentria lortzeko balio izan diete. Probintziako bigarren talde onena da Lasarte-Oriako Atletiko San Sebastianen atzetik eta Super Amara-Bidasoa Atletiko Taldearen aurretik.

"Eurenak ez diren disziplinak egin behar izan dituzte denek, elkartzan handia erakutsi dute eta emaitzengatik baino, harroago nago neskek erakutsi duten



LOKEko neskek, Anoetako Miniestadiko podiumean.

jarreragatik", onartu du Oscar Goikoetxea entrenatzaileak.

Izan ere, esaterako, Amaia Harto disko eta xabalina jaurtitzailea 1.500 metroetako iraupen-erdioko proban ikusi ahal izan genuen, Idolia Olsagasti abiaduran espezialista den neska 400 metro hesietan edota Maider Rekondo pisu-jaurtitzailea pertika-jauzian.

Emaitza onak erdietsi zituzten gainera, lau domina

eskuratuz. Eneitz Busto 3. izan zen 400 metro hesietako proban, 1:07.87ko denborarekin. Maider Rekondo 2. izan zen disko-jaurtiketan 37,50 metroko jaurtiketa eginda. Mailu-jaurtiketan ere zilarra erdietsi zuen lau kiloko gailua 26.23 metroa botata. Oihana Igariz 3. izan zen proba berean 19.52 metrorekin. Orain, lanean jarraituko dute Espainiako txapelketi begira.

Agenda

Asteazkena, 19:00etan



Dantza emanaldia

Udal dantza eskolako ikasleek ikasturte amaierako emanaldia eskainiko dute asteazkenean Manuel Lekuona. Txikienek hasiko dute ikuskizuna, lahezomorro eta tximeletaz jantzita. Piratak, pailazoak eta deabrutxoak ere pasako dira oholizatik. Ikuskizunaren bigarren zatia helduagoen txanda izango da, klasiakoekin doinuak zein film ezagunak erabili dituzte euren koreografiak prestatzeko.

Lasarte-Oria

Kukuka Antzerki eta Dantza Astea

MANUEL LEKUONA

Astelehena, 19:00etan

'Mutirik ez dago ala?' LH6. mai-lakoan an-tzezlana eskainiko dute. 'Zirkoko misterio iluna' lana Zubietako LH4, 5 eta 6 mailakoek.

Astearte, 19:00etan

'Mimo', 'Eduinezuri eta 7 ipotxak', 'Artxain gezurtia', 'Bahiketarrak' eta 'mimoen zirkoa' lanak.

Osteguna, 18:00etan

'Ur magikoa', 'Piratak eta Altxorra', 'Itsasoaren zaindaria', 'Euririk egi

ten ez duen lurraldea' eta 'abenturaz blai' lanak aurkeztuko dira. 21:00etan, 'Pentagrama' gazteen antzezlana.

Ostirala, 22:00etan

Kukuka Antzerki eta dantza eskolako helduen taldeak "Egunero ringiri" antzezlana eskainiko dute. Sarrera 1 euro.

Igandea, 12:00etan

Kukuka antzerki eta dantza eskolako kideek Dantzaz Blai eguna ospatuko dute. 12:00etan euskal dantza eta euskal dantza-sorkuntza taldeen emanaldiak izango dira. 19:00etan, dantza garaikidearen txanda izango da. Sarrera Teuro.

Dantza

OKENDO PLAZA

Astearte eta ostegun, 20:00etan

Sorgin Dantzako entseguak egingo dira hilabeteko astearte eta ostegunetan. Saio iriak dira eta nahi duenak parte hartu ahal izango du. Eguraldi onarekin Okendon egingo dira eta bestela, Garaikotxea eraikinean.



Proiekzioa

MANUEL LEKUONA

Asteazkena, 19:30

Palestinaren lagunek, Lasarte-Oriako pertsona ezberdinek parte hartu duten dokumental laburraren aurkezpena. Dokumental honek, Palestinarekiko elkartasuna adieraztea eta Israeler aurrera daraman apartheid politika salatzea du helburu. Ondoren, "Y sin embargo Al Quds" dokumentala proiektatuko da (Unai Aranzadi, 30'), non Jerusalemeko gaur egungo egoera ezagutzeko aukera izango den.

Irteera

DONOSTIARAKO BIDEGORRIA

Larunbata, 11:00

Herritar talde batek Lasarte-Errekalde bidegorri berriaren herri-inaugurazioa antolatatu du eta herritarrei bertan parte hartzeko deia egiten die. 11:00etan Eusko Treneko geltokitik oinez zein bizikletaz abiatuko da txangoa. Helburua da poza agertzea bidegorri berriagatik eta, aldi berean, hemendik aurrera bide beretik pauso gehiago eman behar direla aldarrikatzea.

Musika

MANUEL LEKUONA

Astearte 16 eta Asteazkena 17, 18:00

Udal Musika eskolako ikasleek ikasturte amaierako kontzertuak eskainiko dituzte guraso eta lagunengatik.

Erakusketa

JALGI

3.Batukada Topaketako argazki bilduma. Horien artean, Dinbi Bandak antolatutako argazki lehiaketako lan sarituak ikus daitezke.

Herritarren txokoa

Lasartetik Esloveniara!!

Lasarte taldea, aurten ere, udako bidaiak prestatzen ari da. Bisitatuko dituzten lekuak: Bled, Maribor, Ljubljana, Postjonnako kobazuloak, Istria... Interesa duzenok deitu telefono honetara: 661 41 78 53 Plaza mugatuak.

Oriatarren bazkaria

Karmengo Amaren egunean, uztailearen 16an, Oriatarren bazkaria antolatuko dute El Jardin jatetxean. Aurten Karmengo Amaren kapera-aren 75. urteurrena ospatuko dute eta On Ramon Uribetxerria apaizari omenaldi txikia egingo zaio urte hauetan egindako zerbitzuarengatik. Bazkariak gozatu nahi duten herritarrek jatetxean bertan eman behar dute izena. Menua 30 euro dira eta haurrentzako bi menu daude, bata 8 eurokoa eta bestea 12 eurokoa.

Santa Ana pintxoa


Aterpeak Santa Ana egunean, uztaileak 26, Santa Ana pintxoa egitasmoa antolatu nahi du iaz bezala. Honetan parte hartu nahi duten tabernek harremanetan jarri beharko dute Aterpeko kideekin 637 95 50 30 telefonon edota itzianirurzun@hotmail.com bidez.

Sorgin dantza zapia

Sorgin dantzako zapiak salgai izango dira entseguetan, Jalgin edota Ttakunen. Kotoizko zapiak 9 euroko prezioan, akrilikokoak 4 eurotan.

Hemeroteka

Duela 1068 ale



45 eguneko grebaren ostean, amaituzat ematen zuten garbitzaileek 2001. urteko ekainaren 4an. Gipuzkoako garbitzaileek hiru urteko lan ituna errespetatzea, epe horretan 35 orduko astea lortzea, %6 soldata igoera eta bajak hobetzea. Sindikatuek eta patronalak ez zuten akordiorik lortu eta bitartekari batek konpondu behar izan zuen auzia. Garbitzaileek esaten zuten "Ezin genuen horrela jarraitu. Sektore honetan lan egiten dugunok beharra daukagulako egiten dugu lan. Greban 45 egun eman ondoren, egoera kinka larrian zegoen, ezin genuen jarraitu". Greba gurean ere antzeman zen bereziki, udal eraikinetan.

Zuen oharrak jarri, keak adierazi edo eskutitzak argitaratzeko:

Geltoko kalea, 4 943 366858 txintxarri@txintxarri.info

San Joaneko soka dantzara gonbitea

Entseguak prestatu ditu Erketzek honetan parte hartu nahi duten herritarrentzat

San Joan bezperan suaren inguruan dantzaten da, urteroko soka dantzan. Erketz dantza taldeko kideek azken urteetan hainbat udal ordezkari ere izan dituzte eurekin dantzatzeko. Aurtengoan herritarrei dei egiten diete honetan parte hartzea eta nahi dutenek eurekin entseguak egiteko aukera izango dute.

Erketz dantza taldeak urtero dantzatu ohi du San Joan suaren inguruan soka dantza. Aurtengoan, dantza jendetsua izan dadin, herritarrek gonbidatu nahi ditu honetan parte hartzea. Dantza honek euskal folklorean duen tradizioa azpimarratu nahi du Erketzek. "Galdu ezin den" usadioa dela azpimarratuz. Neguaren agurrarekin uda bere agerraldirako prest dago.

"Euskal Herrian hain arrunta dirudien gertaera hau ez da oharkabean pasa herritarren jakindurian. Hori horrela denik, eta gure herriak garrantzizkoak dituen gauza eta gertaerak dantzaren bidez adierazteko duen joera kontuan izanik, ez genuke harritu behar egun seinaltuetan gure folkloaren barnean dantza bat topatzea".

Usadio horren nondik norakoak ziurtasunez jakitea "lan nekeza" da. "Halere, badakigu, aurreko mendearen dagoeneko zenbait herritan ospatzen zela Soka dantza, udako solstizioarekin, San Juan egunari lotuta".

Soka dantzaren bidez, "dantzak egiten gaitu sokaren partaide, eta horrela herria osatzen dugun bezelaxe, sokak elkarri lotzen gaitu korapiloen bitartez, gure bata-

sunaren adierazgarri, horregatik soka-dantzan zubiak egiten dira, eta aurreko eta atzeko zubiak gure soka korapilatzen du, sokako hari guztiak eusteko, eeten ez dadin".

Erketzeko kideek esan bezala, "usadio hau leku askotan galdu egin da, nahiz eta aldi berean, gure esku dagoen berreskuratzea".

Entsegu irekiak

Hain zuzen hori da Erketzek luzatu nahi duten gonbitea. Soka dantzaren usadioari gurean jarraipena emateko, herritarren laguntza behar dute eta asmo horrekin gonbidapena luzatu nahi diete herritarrei Soka dantzan parte har dezaten.

Dantza ongi prestatzeko, hiru saio ireki egingo dituzte datozen egunetan. Lehenengo ostiralean izan zen, eta honetan Alboka eta Zero Sette ere izan ziren. Hurrengoak, ekainaren 9an eta 16an biak astearteak, 20:00etan izango dira. Entseguak euren lokalean, Zumaburuko eskolan egingo dituzte. "Entsaiatzeko prest han egongo gara, animatu eta dantzatu gurekin".

San Joan ospakizunak

Usadioari jarraituz, ekainaren 23an 21:30etik aurrera ospatuko da San Joan sua Okendon.



Zero Sette akordeoi orkestra eta Alboka abesbatzako kideak ostiraleko entseguan.

Udaletxe zahar aurrean hasiko dira ekintzak. Kalejiran dantzari, udal batzar kideak eta musikariek Oken-dora hurbilduko dira.

Plazara iristean Erketz EDT, Erketzen lagunak taldea eta animatzen diren herritarrek sokadantza eta San Joan zortziko tradizionala dantzatu dute. Aurten gainera, Erketzeko musikariez gain, Zero Sette akordeoi orkestra eta Alboka abesbatzako kideak izango dira hainbat zatitan haien kantu eta doinuez laguntzen.

Dantzak amaitzean, kalejira herrikoia egingo dute eta 22:00etan sua piztuko da, ohitura den moduan.



Erketze DTko kideak buru-belarri ari dira soka dantza prestatzen.

Gipuzkoako Foru Aldundiaren partaidetzako aurrekontuak
2.000.000 € **Buruntzaldea** hobetzeko

150 proposamenen

} Eskualdeko batzarrean erabakiko duzue zeintzuk egingo duten aurrera

HERNANI. EKAINAK 9, 19:00etan, Gabriel Zelaia zentroan (Florida auzoa, 28)

Antolatzailea

Zure esku dago!

 **Gipuzkoa**
BERRIA

